

aisialdia



zirimola
IKASTOLEN AISIALDI TALDEA

www.aisialdia.eus



ZIRIMOLA Ikastolen Aisialdi Taldea.


- “Gelaz kanpoko eremua, eremu hezigarria da, ikaslearen garapen integralerako beste esparru bat gehiago” hortxe dihardu lanean Zirimolak, ikastoletan aisialdiaren esparruan.
- Udalekuak, egonaldiak, Alloko etxea, Pulunpa, Joko eta jolasak sustapen jarduerak... 2021ean 4.000 haur eta gazte kudeatu dira. Hezitzaileak: gelatik kanpoko jardunaren oinarria.

AISIOLA HEZITZAILE ESKOLA

- 2001 urtean sortu
- Lanbideko “Haurren eta gazteen aisialdiko jardueren dinamizazioa” ziurtagiri profesionala eta Eusko Jaurlaritzako “Haur eta gazteen aisialdirako begirale diploma” lortzen da.
- 2020-22 ikasturtean 431 ikasle, 25 talde. Hegoaldeko 4 herrialdeetan.

ONGI ETORRIAK AISIOLARA.

Ongi etorriak Euskal Herriko Ikastolen mugimendura.



- Ikastolez ari garela hiru ideia nagusi:
 1. Parte hartze zuzena. Ikastolak Kooperatibak dira.
 2. Hezkuntza eredu propioa: gure herriko kultura eta hizkuntza ardatz dituen eta bizi dugun garaira egokitua.
 3. Material propioa sortu eta erabili.

AISIOLAREN ZEREGINA (ZIB)

AISIOLA Euskal Herriko Ikastolen elkartearen Aisialdi Eskola da, hau da, aisialdiko Hezitzaileen eta Zuzendarien formaziorako eskola. IKE AISIOLA euskal izaera duen elkarte da, haur eta gazteentzako aisia hezitzailea sustatzeko lanean diharduena, euskara eta euskal kulturarekiko konpromisoa landuz eta ekologiaren funtsezko balioak transmitituz.

BALIOAK

- Aisialdi euskalduna, hezitzailea, eraikitzailea eta eraldatzailea sustatzea.
- Ekologia. Ingurumena zaintzeko eta errespetatzeko ardura izatea.
- Aniztasuna aberastasuna dela ulertu eta guztientzat aukera-berdintasuna bilatzea, sexu, genero, sexualitate, etnia, erlijio, ideia, pentsamendu sozio-politiko, gaitasun eta trebetasun, kultura, familia-egitura, jatorri, fisiko,...dena delakoa izanik ere.
- Elkarlanerako jarrera parte-hartzailea izatea.
- Pertsonen garapen integrala lortzeko, jolasa eta sormenaren garrantziaz jabetzea.

HEZITZAILEAREN IRTEERA PROFILA

- Garapen pertsonalean hazten eta hezten lagunduko dio ikastaroak ikasleari
- Haurren aisialdi parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra bultzatzeko tresnak eskuratuko ditu.
- Haurra subjektu aktibo bezala ikusiko du (protagonista), hezitzailea bidelagun izanik.
- Aniztasuna, inklusioa zein parekidetasuna sustatuko ditu.
- Lehiakortasuna baztertu eta kolaborazioa/kooperazioa sustatuko ditu.

IKASTAROAREN ANTOLAKETA ETA EGITURA

- Bi bloke ditu ikastaroak, guztira **310 ordu**:
 - **Atal teorikoa (150 ordu)**:
 - Haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza-jarduerak (60 ordu)
 - Talde eta hezkuntza-prozesuak haur eta gazteen aisialdian (30 ordu)
 - Animazioko teknikak eta baliabideak aisialdiko jardueretan (60 ordu).
 - **Atal praktikoa (160 ordu)**:
 - Haur eta gazteen aisialdiko jarduerak dinamizatzeko lanbide-praktika ez laboralen modulua (160 ordu).
 - Gutxienez 16 eguneko iraupena duten aisialdiko ekimenetan
 - Arlo teorikoa bukatu eta 3 hilabeteko epean hasi behar dute.
 - Tutorea, Aisialdiko zuzendari titulua duen pertsona bat izango da.
 - Bukaeran, [memoria](#) bat egin behar du ikasleak

EGUTEGIA

- Normalean ostiraletan izaten da, **15:30-20:30era. 5 orduko 30 saio** dira. Urtarriletik apirilera bitarteko asteburu baten, **Alloko aterpetxean asteburu bat** pasatzen da (ez da beti egutegian azaltzen den asteburua izaten).
- Ikastaroa egiteko bi aukera ditu ikasleak:
 - **Bi ikasturtetan egitea** (Batxi 1 eta 2). Saioak bi ostiraletik behin izango dira.
 - **Ikasturte bakarrean egitea** (Batxi 2, Goi mailako lanbide heziketa). Saioak ostiralero izango dira.

PREZIOA

150 orduko ikastaro teorikoa eta 160 orduko praktikaldiaren kudeaketa:

- **430 €/ikasleko (Ikastolen Elkarteko ikasleak)**
- **450 €/ikasleko (gainerakoak)**

Gutxienez 10 ikasle behar dira talde osotzeko

Eskerrik asko!